BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

818

EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 20koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde pribatuentzako 2015. urterako diru-laguntzen deialdia arautzen duen Ebazpenaren babesean aurkeztu diren eskabideak aztertuko dituen Hautaketa Batzordearen osaera argitaratzen duena. Diru-laguntza horien xedea da enpresa eta erakunde pribatu horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzea, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak, 2014ko abenduaren 3ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde pribatuentzako 2015. urterako diru-laguntzen deialdia arautu zuen. Diru-laguntza horien xedea da enpresa eta erakunde pribatu horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzea, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko. Ebazpen hori 2014ko abenduaren 26ko EHAAn argitaratu zen.

Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko osatuko den Hautaketa Batzordearen osaera arautzen du aipatutako 2014ko abenduaren 3ko Ebazpenaren 8. artikuluak. Hautaketa Batzordeak arrazoitutako ebazpen-proposamena emango du, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari aurkeztuko dio.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde pribatuentzako 2015. urteko diru-laguntzak arautzen dituen deialdiaren Hautaketa Batzordeko kideak izendatzea, eta bere osaera argitaratzea. Diru-laguntza horien xedea da enpresa eta erakunde pribatu horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzea, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko.

Bigarrena.– 2014ko abenduaren 3ko Ebazpenaren 8. artikuluan araututako Hautaketa Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

a) Batzordeburua:

Ana Alberdi Zubia andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

b) Batzordekideak:

Rafael Junguitu Uribe jauna, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Administrazio eta Zerbitzu arloko arduraduna.

Raquel Raposo Acevedo andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Programak eta Formakuntza arloko arduraduna.

Ane Miren Fernández Gómez andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko teknikaria.

Izaskun Fernández Otegi andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Aholkularitza Juridiko arloko arduraduna; idazkari-lanetan ere arituko da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 20a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.